

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**BIZKAIKO
ESPERIENTZIA
GELAK
AULAS DE LA
EXPERIENCIA
DE BIZKAIA**

IRAKASGAIAREN TITULUA/TÍTULO ASIGNATURA: **MEDICAMENTOS Y SOCIEDAD**

Irakaslea/Profesor: **J. Javier Meana**

Irakasgaiaren azalpena/Descripción de la asignatura

Sendagaiak gaur egungo gizartean irudi nahiko adierazgarria dira. Osasunerako eta ongizaterako tresna gisa erabiltzen dira eta, aldi berean, ondasun ekonomiko urriak eta garestiak dira; hori dela eta, mugatua da sendagaiak eskuratzeko aukera eta jarduera ekonomikoetarako produktu oso estimatuak dira.

Bestalde, sendagaien eraginkortasuna ebaluatzeko, haien segurtasuna frogatzeko eta, jakina, sendagaien bidezko eskuragarritasuna bermatzeko, beharrezkoak dira Administrazioaren eskuhartzea eta jarduera arautzaileak, eta horrek beti eragiten ditu eztabaidak.

Aldagai horiek hobeto ezagutzeak industria farmazeutikoaren, osasun sistemen, pazienteen beharren, jasangarritasun ekonomikoaren, publikoari helarazi beharreko informazioaren eta profesionalen prestakuntzaren arteko oreka konplexua eta delikatua ulertzen laguntzen dute.

Gaitasunak/Competencias

Ikasturte amaierarako ikasleak sendagaien munduarekin lotutako hainbat kontzeptu bereizteko gai izan daitezen espero da, hala nola kalitatea, eraginkortasuna, segurtasuna, efizientzia, eskuragarritasuna, babes etikoa...

Ikasturte amaierarako ikasleak "sendagaien zentzuzko erabileraren" kontzeptua ulertzeko, erabiltzeko eta transmititzeko gai izan daitezen espero da.

Ikasturte amaierarako ikasleak sendagaiei buruzko oinarri zientifikodun informazioa eta pseudozientziarekin edo zalantzazko ebidentzia zientifikoekin lotutako alderdiak bereizteko gai izan daitezten espero da.

Ikasturte amaierarako ikasleek zera uler dezaten espero da: osasuna interakzio biologiko, psikologiko eta sozialen ondorio dela eta, horrek, sendagaiek muga terapeutikoak izan ditzaten eragiten duela eta, beraz, bizitza estilo eta baldintzetan eragin beharra dagoela, bizitza estilo osasungarri bat lortzeko.

Edukiak/Contenidos

Irakasgai honek sendagaien ikuspegi orokorra eskaintzen du, bai eta haien prozesuena ere, gaur egungo gizarteetako osasunaren zein ekonomiaren ikuspegitik. Diagnostiko eta terapietan txertatzen ari diren berritasunak aurkeztuko dira, hala nola doitasunezko Medikuntza, CART terapiak, etab.

“Medikuntza alternatibo” deritzenen presentzia dela eta –tartean, homeopatia–, berariazko kapituluak eskainiko dira, horiek aurkezteko eta balorazio kritikoa egiteko. Fitoterapiarekin eta Nutrazeutikoekin zerikusia duten alderdiak ere sartzen dira programazioan.

Gaiaren amaieran, herritarrek gehien erabiltzen dituzten sendagaien azalpena egingo da, matrikulatutako ikasleek horiei buruzko ezagupen handiagoak jaso ditzaten.

Metodologia/ Metodología

Ikasturte hasieran, gaien programa, helburuak eta egutegia banatuko zaizkie ikasleei. eGela zerbitzuan egongo da eskuragarri informazioa.

Ahozko azalpenetan eta ikasleekin eztabaida interaktiboak egitean oinarritzen da metodologia; halaber, materiala ere banatuko da, ikasleek eskola orduetatik kanpo analiza dezaten. Irakasgaiaren lagungarri modura, kasuak eta adibideak aurkeztuko dira, ikasleek horien inguruan hausnartu eta eztabaidatu dezaten. Sendagaiak baimentzearen, merkaturatzearen, preskribatzearen, erabiltzearen eta finantzatzearen arloetan erabakiak hartzeak dakarren zailtasuna eta erantzukizuna transmititu nahi zaie. Ikasturte amaierarako ikasleak “sendagaien zentzuzko erabileraren” kontzeptua ulertzeko, erabiltzeko eta transmititzeko gai izan daitezten espero da.

Gai bakoitza amaitzerakoan, e-gela zerbitzuan zintzilikatuko dira erabilitako materialak –ikusentzunezko aurkezpenak barne–, ikusentzunezko baliabideekin eta bibliografiekin batera.

Ebaluazio sistema/ Sistema de evaluación

Asistentziarekin gaitzen da irakasgaia, ikastetxearen gomendioei jarraituz.

Bibliografia/Bibliografía

Gai bakoitzari buruzko bibliografia jasoko dute ikasleek, fotokopietan, eta eskuragarri egongo da e-gela zerbitzuan ere.